DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

LEIRE UGIN SORALUCE (1, guztira 1)
Idazkari-kontuhartzailea
Sinaduraren data: 19/03/2025
HASH: b057e46ac747ef54a8f332a2b0ec0a41

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA, DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAREN HAINBAT ASEGURU PRIBATUREN ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

A U R K I B I D E A

I. kapitulua.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA
2.- KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA
3.- KONTRATUAREN IRAUPENA
4.- KONTRATUARI KALKULATZEN ZAION BALIOA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA
5.- KONTRATUAREN PREZIOA
6.- FINANTZAKETA
7.- ORDAINTZEKO MODUA
8.- PREZIOAK BERRIKUSTEA
9.- BEHIN BETIKO BERMEA

II. kapitulua.- KONTRATATZEKO PROZEDURA 10.- ESLEITZEKO PROZEDURA
11.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOA
12.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK
13.- KONTRATATZEKO AHALMENA
14.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK
15.- KONTRATAZIO MAHAIA
16.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA
17.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA
18.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA TRATATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA
19.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA
20.- KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

III. kapitulua.- KONTRATUA GAUZATZEA

21.- KONTRATUA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA
22.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA
23.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK
24.- KONTRATUAREN ARDURADUNA
25.- KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK
26.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK
27.- DATU PERTSONALEN BABESA
28.- SEGURTASUNA ETA LAN OSASUNA
29.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK
30.- HORNIDURA JASOTZEA ETA BERME EPEA
31.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

IV. kapitulua. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA 32.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA
33.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

I. ERANSKINA: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK
I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA: JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK
II. ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREKIN: 1. LOTEA, 2. LOTEA ETA 3. LOTEA
III. ERANSKINA: BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honetan oinarrituz bete behar den kontratuaren xedea DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAren hainbat aseguru pribatu kontratatzea da, Baldintza Teknikoen Pleguan, Plegu honetan eta kontratuaren esleipena irabazten duen eskaintzan jasotako baldintzak betez.

Esleipenaren ondorioetarako, kontratua ondoren adierazten diren hiru loteetan banatzen da, eta lote baterako, zenbaitetarako edo guztietarako aurkeztu daiteke eskaintza:

- 1. LOTEA: Debagoieneko Mankomunitatearen ondarea osatzen duten higiezinei egindako kalteen gaineko asegurua (edukitzailea eta edukia). CPV kodea: 66515000-3 (kalteen gaineko aseguru zerbitzuak).

- 2. LOTEA: Ondarezko Erantzukizun Zibileko Asegurua, Mankomunitateari –jabari publikoko eta ondarezko ondasunen titular gisa eta zerbitzu publikoen emaile gisa– hirugarrenen aurrean egotz dakiokeen erantzukizunaren gainekoa, turismoaren inguruan ekitaldi publikoak antolatzearen ondorioz egotz dakiokeen erantzukizuna barne; horien artean: bisita gidatuak, bildotsak burruntzian erretzea, ikuskizunak, mendi ibiliak, etab. CPV kodea: 66516400-4 (erantzukizun zibil orokorreko aseguru zerbitzuak).
- 3. LOTEA: Ingurumen arloko Erantzukizun Zibileko asegurua, Mankomunitateari, Epeleko hondakin ez-arriskutsuen hondakindegian izan litezkeen kalteen ondorioz, egotz lekiokeen erantzukizunaren gainekoa. CPV kodea: 66516000- 0 (erantzukizun zibileko aseguruen zerbitzuak).

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio espedientean emandako Memoria Teknikoan agertzen dira Mankomunitateak plegu honetako kontratua egiteko izan dituen arrazoiak.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honetako lote guztiek urtebete iraungo dute, 2025ko ekainaren 1eko 00:00etatik 2026ko maiatzaren 31ko 24:00etara, eta urtero luzatu ahalko dira, elkarrekin adostuta, 5 urtez gehienez ere, hasierako aldia barne hartuz.

Aseguru Kontratuari buruzko Legearen 22. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aseguratzaileak uko egin diezaioke kontratua luzatzeari, uneko aseguruaren aldia amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez Mankomunitateari jakinarazpen bat idatzita.

Aseguratzaileak kontratua salatzen badu, kontratatutako polizak indarrean jarraituko du esleipendunarentzako nahitaezko luzapen gisa, harik eta Mankomunitateak kontratatu beharreko poliza berria indarrean jarri arte. Kasu horretan, erakunde aseguratzaileari ordaindu beharreko primaren zenbatekoa kontratua indarrean den egunekiko proportzionala izango da.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 30

4. KONTRATUARI KALKULATZEN ZAION BALIOA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratuaren balio zenbatetsia 80.000 €-koa da, xehetasun honen arabera:

- Lizitazioaren zenbatekoa (BEZa kanpo): 16.000 €.
- Luzapenen zenbatekoa (BEZa kanpo): 64.000 €.

Kontratuaren oinarrizko aurrentua da: 16.000 €.

Lizitatzaileek beherantz hobetu ahal izango dute lizitazioaren oinarrizko aurrekontua. Eskaintzen zenbatekoa prima totala izango da, tartean, gastu guztiak eta, bereziki, aplikatzekoak diren tasa, tributu, zerga eta errekargu guztiak; baita Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari dagokion prima ere.

SPKLren 100.2. artikuluan xedatutako ondorioetarako, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko, honako kontzeptu hauek hartu dira kontuan:

- Prima garbia.
- Aseguru primen gaineko zerga.
- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren errekargua, kalteen gaineko aseguruaren kasuan.

5. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa esleipenean ateratzen dena izango da. Prezioan sartuta egongo dira aplikatzekoak diren orotariko tributu, tasa eta kanonak, bai eta pleguan jasotako betebeharrak betetzeko esleipendunak egin beharko dituen gastu guztiak ere.
Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20. Bat, 16 artikuluaren arabera, kontratu hau Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dago.

6. FINANTZAKETA

Kontratua esleitzeko, baldintza etengarria da kontratutik eratorritako obligazioak dagokion ekitaldian finantzatzeko kreditu egokia eta behar bestekoa egotea.

7. ORDAINTZEKO MODUA

Kontratatutako aseguru poliza formalizatzearen ondoriozko primaren zenbatekoa jasoko du esleipendunak DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEtik.

Mankomunitateak dagokion kontratua/poliza sinatu ondoren ordainduko du kontratua/poliza, erakunde aseguratzaile esleipendunak erreziboa aurkezten duenean, kontuan harturik kontratuaren arduradunak adostasuna eman behar diola erreziboari.

Luzapen kasuan, indarrean jartzen den hilabetearen barruan ordainduko da prima, kontratuaren arduradunak adostasuna eman beharreko erreziboa aurkeztu eta gero.

Prima noiz ordaintzen den kontuan hartu gabe, konpainia aseguratzailearen betebeharra izango da aseguru kontratuaren indarraldian gertatutako ezbeharrengatiko indemnizazioak ordaintzea.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 30

jasoarazi dadin, adierazten da kontabilitate publikoko gaietan eskumena duen organoa eta Kontratazio Organoa eta unitate hartzailea Debagoieneko Mankomunitatea dela.

8 . PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez dagokio prezioak berrikustea.

9. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren lote bakoitzaren esleipendunak, onartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko berme bat eratzeko betebeharra dauka, lote bakoitzerako eskainitako azken prezioaren zenbatekoaren %5ekoa.

Aipatutako berme hori eratzeko epea 17. klausulak aipatzen duen errekerimenduan adierazten dena izango da, eta SPKLren 108. artikuluan xedatutako edozein bideren bitartez egin ahal izango da. Bermea eratu dela egiaztatzeko, baliabide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabili ahal izango dira. Lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ez bada baldintza hori betetzen, Administrazioak ez du esleipenik egingo haren alde.

Bermea Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko edo ezereztuko da, bermearen epea amaitu eta gero, eta esleipendunak kontratuko bere betebehar guztiak bete eta gero.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

10. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da, SPKLn xedatutakoaren arabera, eta bere tramitazioan aipatu Legean eta bere garapen arauetan jasotzen diren jarduketak egingo dira.

11. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau baliabide elektronikoen bidez tramitatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin bat etorriz. Ondorioz,Mankomunitateak lizitatzaileekin duen harremana ere baliabide horiek erabiliz gauzatuko da.

12. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi buruzko jakinarazpen eta komunikazio guztiak modu elektronikoan egingo dira.

13. KONTRATATZEKO AHALMENA

Kontratatzeko prozedura honetan gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoaren jabe diren pertsona natural edo juridiko guztiek parte hartu ahal izango dute, baldin eta behar den kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala badute, eta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko xedatzen diren debekuetan sartuta ez badaude. Kaudimena Administrazio Klausula Berezien 18. klausulan ezarritako bitartekoen bidez egiaztatu eta

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 30

ebaluatuko da.

Halaber, berez egin ahal izango da edo pertsona baimendunak ordezkatuta, xede horretarako emandako ahalordearen bitartez. Pertsona juridiko bat ordezkatuz bere kide bat agertzen denean, agiri bitartez egiaztatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariari kontratatzeko aipatutako ezintasun arrazoiak egokituko zaizkio.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa egiteko exijitu daitekeen gaitasun enpresariala edo profesionala izan beharko dute. Enpresa esleipendunek erakunde aseguratzaile izaera eduki beharko dute, baita plegu honetan aipatzen diren aseguru arloetan jarduteko baimena ere.

14. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da, eta eskaintzak baloratzeko, automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak erabiliko dira, lote bakoitzari dagokion haztapena kontuan hartuz

Automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak: %100.

1. lotea, ondare kalteen gaineko asegurua

1. **Prezioa: gehieneko puntuazioa: 70 puntu.**

   Honako formula honen arabera baloratuko da:

   $$\text{Puntuazioa} = 70 \times \frac{\text{Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua-Baloratu beharreko eskaintzaren prezioa}}{\text{Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua-Eskaintza baxuenaren prezioa}}$$

2. **Frankiziaren zenbatekoaren murrizketa: gehieneko puntuazio, 20 puntu.**

   Honelaxe baloratuko da:
   - Frankizia kentzea: 20 puntu.
   - Zehaztutako gehieneko frankiziaren %50: 10 puntu.
   - Gehieneko frankizia: 0 puntu.

3. **Indemnizazio mugen zabalpena: gehieneko puntuazioa: 10 puntu.**

   Honela baloratuko da:

   - **Ezbeharragatiko gehieneko indemnizazioaren muga orokorraren zabalpena: 5 puntu.**
     Baldintza Teknikoen Pleguaren 18. klausulan adierazitako zenbatekoarekiko (600.000 €) 20.000 €-ko hazkundea gertatzen den bakoitzeko, puntu 1ekin baloratuko da.

   - **Ezbeharragatiko gehieneko azpimugak: 5 puntu.**
     0,5 puntu emango dira lote honi dagokion eskaintza ekonomikoaren ereduan jasotzen diren Baldintza Teknikoen Pleguaren 18. klausulan adierazitako indemnizazio azpimuga guztiekiko %1eko hazkundea gertatzen den bakoitzeko.

2. lotea, ondarezko erantzukizun zibileko kalteen gaineko asegurua

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 30

1. **Prezioa: gehieneko puntuazioa: 70 puntu.**

   Honako formula honen arabera baloratuko da:

   Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua-Baloratu beharreko eskaintzaren prezio

   Puntuazioa = 70 x Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua-Eskaintza baxuenaren prezioa

2. **Frankiziaren zenbatekoaren murrizketa: gehieneko puntuazioa: 20 puntu.**

   Honela baloratuko da:
   - Frankizia kentzea: 20 puntu.
   - Zehaztutako gehieneko frankiziaren %50: 10 puntu.
   - Gehieneko frankizia: 0 puntu.

3. **Indemnizazio mugen zabalpena: gehieneko puntuazioa: 10 puntu.**

   Honela baloratuko da:

   - **Ezbeharragatiko gehieneko indemnizazioaren mugaren zabalpena: 4 puntu.**
     Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. klausulan adierazitako zenbatekoarekiko (600.000 €) 20.000 €-ko hazkundea gertatzen den bakoitzeko, puntu 1ekin baloratuko da.

   - **Gehieneko indemnizazio mugaren zabalpena urteko: 4 puntu.** Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. Klausulan adierazitako zenbatekoarekiko (600.000 €) 20.000 €-ko hazkundea gertatzen den bakoitzeko, puntu 1ekin baloratuko da.

   - **Gehieneko indemnizazio mugaren zabalpena biktimako: 2 puntu.**
     Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. klausulan adierazitako zenbatekoarekiko (300.000 €) 20.000 €-ko hazkundea gertatzen den bakoitzeko, puntu 1ekin baloratuko da.

<u>3. lotea, ingurumen arloko erantzukizun zibileko kalteen gaineko asegurua</u>

1. **Prezioa: Gehieneko puntuazioa: 70 puntu.**

   Honako formula honen arabera baloratuko da:

   Puntuazioa = 70 x Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua-Baloratu beharreko eskaintzaren prezi Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua-Eskaintza baxuenaren prezioa

2. **Frankiziaren zenbatekoaren murrizketa: gehieneko puntuazioa: 20 puntu.**

   - **Gehieneko frankizia orokorraren murrizketa: 10 puntu.** Honela baloratuko da:

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 30

- Frankizia kentzea: 10 puntu.
- Zehaztutako gehieneko frankiziaren %50: 5 puntu.
- Gehieneko frankizia: 0 puntu.

- **Lurzorua deskontaminatzeko gastuetarako gehieneko frankizia espezifikoaren murrizketa: 10 puntu.**
  Baldintza Teknikoen Pleguaren 8. klausulan adierazitako portzentajearekiko (%10) %1eko murrizketa gertatzen den bakoitzeko, puntu 1ekin baloratuko da.

3. **Indemnizazio mugen eta azpimugen zabalpena: gehieneko puntuazioa: 10 puntu.**

   Honela baloratuko da:

   - **Ezbeharragatiko gehieneko indemnizazioaren mugaren zabalpena: 2 puntu.**
     Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. klausulan adierazitako zenbatekoarekiko (2.000.000 €) 100.000 €-ko hazkundea gertatzen den bakoitzeko, puntu 1ekin baloratuko da.

   - **Gehieneko indemnizazio mugaren zabalpena urteko: 2 puntu.** Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. Klausulan adierazitako zenbatekoarekiko (2.000.000 €) 20.000 €-ko hazkundea gertatzen den bakoitzeko, puntu 1ekin baloratuko da.

   - **Gehieneko indemnizazio mugaren zabalpena biktimako: 2 puntu.**
     Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. Klausulan adierazitako zenbatekoarekiko (150.000 €) 10.000 €-ko hazkundea gertatzen den bakoitzeko, puntu 1ekin baloratuko da.

   - **Ezbeharragatiko gehieneko indemnizazio azpimugen zabalpena eta kutsaduragatiko, ingurumen erantzukizunagatiko eta lurzoruaren deskontaminazioagatiko erantzukizun zibilaren urteko kuota: 4 puntu.**
     0,5 puntu emango dira, Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. klausulan adierazten denez, kutsaduragatiko, ingurumen erantzukizunagatiko eta lurzoruaren deskontaminazioagatiko erantzukizun zibilaren indemnizazio azpi-mugen baturarekiko %1eko hazkundea gertatzen den bakoitzeko.

15. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria:
  - Mankomunitateko lehendakaria
- Mahaikideak:
  - Kontuhartzailetzako Teknikaria
  - Mankomunitateko idazkari-kontuhartzailea
- Idazkaria:
  - Mankomunitateko idazkari-kontuhartzailea

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 30

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA

Lizitazio hau Mankomunitate honen kontratatzailearen profilean iragarriko da, zeina Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataforman ostatatuta dagoen.
Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako Plataformaren bitartez, aipatutako iragarkia agertu eta biharamunetik zenbatzen hasita 15 egun naturaleko epean, adierazitako epearen azken eguneko 14:00etara arte.

Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean sartzeko, honako helbide hau erabili beharko da: www.debagoiena.eus. Gune horretan bertan pleguak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori proposamenak jasotzeko ezarritako azken data baino sei egun lehenagoko epean emango da, baldin eta eskaera proposamenak jasotzeko lehen adierazitako azken data baino 12 egun lehenago egin bada.

SPKLren 136.2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera, pleguei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada adierazitako epeen barruan eman, eta eskaintzak lekuan bertan bisita bat egin eta gero edo pleguari atxikitako dokumentazioa in situ kontsultatu eta gero baino ezin izan badira egin, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, eragindako hautagaiek eskaintzak formulatzeko behar duten informazio guztia ezagutu ahal izateko komenigarritzat jotzen den denboran.

Lizitaziorako prozedura honetan ez da onartuko deskribatutako baliabide elektronikoen bidez aurkeztu ez den eskaintzarik. Ondorio horietarako, ezinbesteko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataforman edo Sektore Publikoko Kontrataziorako Plataforman erregistratutako erabiltzailea izatea.

Eskaintzaren dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, lizitatzaileak fitxategi okerrean sartutako dokumentua modu digitalean aurkeztea onartuko da, gehienez ere egoera hori jakinarazi eta 24 orduko epean. Ondoren aurkezten den dokumentuak ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan sartutako jatorrizkoarekin alderatuta. Kontratazio Organoak egiaztatzen badu dokumentuan aldaketak egin direla, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenek Administrazio Klausula Berezien Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan xedatutakoa bete beharko dute, eta, aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela aipatutako klausulak edo baldintzak, inolako salbuespenik eta erreserbarik gabe, eta, halaber, baimena ematen diela Mahaiari eta Kontratazio Organoari Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan eta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean dauden datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat baino ezingo du aurkeztu. Halaber, ezin izango du beste lizitatzaile batzuekin batera enpresen aldi baterako elkartea eginez proposamenik aurkeztu aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

Informazio publikoa eskuratzeari buruzko legedian xedatutakoaren kalterik gabe, eta

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 30

hautagaiei eta lizitatzaileei esleipenaren inguruan eman beharreko publizitateari eta informazioari buruz SPKLn xedatutakoaren kalterik gabe, horiek konfidentzialtzat jo dezakete eskaintzak formulatzen dituztenean ematen duten informazioaren zati bat, bereziki sekretu teknikoei edo komertzialei eta alderdi konfidentzialei dagokienez. Mankomunitateak ezin izango du informazio hori jakinarazi dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

17. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek bi gutun azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte lote bakoitzeko, lizitatzaileak edo hura ordezkatzen duen pertsonak sinatuta, eta klausula honetan gutun azal bakoitzerako zehazten den edukiarekin.

"A" GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA"

Gutun azal honek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Gaitutako helbide elektronikoa.

Gaitutako posta elektronikoko helbide bat esleitzea, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak egiteko. (I. eranskinaren gehigarria)

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan lizitatzaileak adieraziko du Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, baita plegu honetan kontratua eskuratzeko baldintzak ere. Adierazpena bat etorriko da Europako Kontratazio Dokumentu Bakarraren formularioarekin (DEUC), eta, hori betetzeko, plegu honetako I. eranskinean dauden jarraibideak jarraitu daitezke.

Hala ere, Kontratazio Mahai edo Organoak, prozedura ondo burutzea bermatu beharrez, esleipenaren aurreko edozein momentutan eskatu ahalko du lizitatzaileek aurkeztea kontratuaren esleipenduna izateko plegu honetan adierazitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.

c) Enpresen aldi baterako elkarte moduan aurkezten diren operadoreei dagokienez (ABEE), partaideetako bakoitzak bere Erantzukizunpeko Adierazpena aurkeztu beharko du. Halaber, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa hartu beharko dute kontratuaren esleipendunak suertatuz gero, eta zehaztu beharko dituzte haietako bakoitzaren izenak, inguruabarrak eta ABEEan duten parte hartzea.

d) SPKLren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat eginda, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartekoetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere Erantzukizunpeko Adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Legean eta plegu honetan eskatutako nortasun, gaitasun eta kaudimen baldintzen konkurrentzia baloratzeko momentu erabakigarria izango da eskaintzak aurkezteko epearen amaiera.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 30

«B» GUTUN AZAL ELEKTRONIKOA.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALORAZIO AUTOMATIKOKO BESTE IRIZPIDE BATZUK"

Gutun azal honek proposamen ekonomikoa eta balorazio automatikoko gainerako irizpideei buruzko dokumentazioa jasoko ditu, II. eranskinean jasotako ereduaren arabera, eta Mankomunitateak ezarritako gehieneko prezioak ez dira inola ere gainditukо. Eskainitako prezioren batek lizitazioaren gehienekoa gainditzen badu, eragindako loteari dagokion eskaintza baztertu egingo da.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Gainera, bakarka proposamenen bat aurkeztu badu, ezingo du beste enpresa batzuekin aldi baterako enpresa elkarte gisa proposamenik egin, ezta Aldi Baterako Enpresa Elkarte batean baino gehiagotan parte hartu. Printzipio hori ez betetzeak aurkeztutako proposamen guztiak baztertzea ekarriko du.

Proposamen ekonomikoa karaktere argiekin aurkeztuko da, eta ez dira onartuko eskaintza argi eta garbi ezagutzea galarazten duten omisioak, akatsak edo ezabaketak dituztenak.

18. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA ETA TRATATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, honako hauek egingo dira:

1º. «A» GUTUN AZALA IREKITZEA

Mahaiak «A» gutun azala irekiko du elektronikoki eta bertan dagoen dokumentazioa kalifikatuko du.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, Mahaiak hautematen badu aurkeztutako dokumentuetan konpondu beharreko akatsak daudela, dagokien lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akatsak konpontzeko.

Gainera, lizitatzaileei konpontzeko helarazten zaizkien eskaerak Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman ere iragarriko dira.

2º. **«B» GUTUN AZALA IREKITZEA**

"A" gutun azala ireki eta barruko dokumentazioa eskuratu ondoren, Kontratazio Mahaiak "B" gutun azala irekiko du, Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean adierazitako leku, egun eta orduan.

3º. **ESKAINTZEN SAILKAPENA**

Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak garrantziaren arabera (handienekotik txikienekora) sailkatuko ditu Kontratazio Mahaiak, eta, egin beharrekoak egin eta gero, proposamena helaraziko dio Kontratazio Organoari.

Eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak ez dira baloratuko.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen lizitatzailearen

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 30

alde, eta ez du horrelako eskubiderik bereganatuko, Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatzen den arte.

4º. LEHEN SAILKATUARENTZAKO ERREKERIMENDUA

Kontratazio Organoak Mahaiaren proposamena onartu eta gero, kontratazio zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, ondoren adierazten diren egintzak egiteko edo dokumentuak aurkezteko:

a) Parte hartzailearen edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordez jardunez gero, notarioaren ahalordea, Mankomunitate honek askietsia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eraketa eskritura edo, hala badagokio, aldaketarena, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu behar zaion merkataritza legeriaren arabera inskribapena derrigorrezkoa denean. Hala ez balitz, jarduteko ahalmena duela egiaztatzeko, eraketa eskritura edo dokumentua, estatutuak edo sortze egintza erabiliko dira, jarduera arautzen duten arauak jasota, horiek denak dagokien Erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.
Europar Batasuneko kide diren Estatuetako enpresari ez espainiarrak direnean, enpresa duten Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute edo, aplikagarri zaizkien Europar Erkidegoko xedapenen arabera, zinpeko aitorpena edo egiaztagiria aurkeztu.
Atzerriko gainerako enpresaburuek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena.

c) **Erakunde Aseguratzaile** izaera edukitzea eta dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egotea egiaztatzen duen dokumentua.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen egiaztagiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, uneko ekitaldiari badagokio, edo JEZaren azken egiaztagiria gainerako kasuetan; eta kasu batean zein bestean erantzukizunpeko adierazpen bat ere emango da, aipatutako zergaren matrikulan baja emanda ez dagoela adierazteko.

e) Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak, SPKLren 87. artikuluaren a) letran eta 90. artikuluaren a) letran xedatutako bitartekoen bidez. Aipatutako bitartekoei dagokienez, enpresek kontratu konkretu honetarako bete beharko dituzten gutxieneko kaudimen betekizunak hauek dira:

- **Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:** joandako azken hiru urteetan negozio bolumen handieneko urtean izandako zifra, gutxienez, proposatutako loteari edo loteen baturari kalkulatzen zaion balioaren halako bat eta erdi izan beharko da.
- **Kaudimen teknikoa eta profesionala:** azken hiru urteetan, kontratu honen xede diren aseguru zerbitzu berdinen edo antzekoen exekuziorik handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoak loteari edo loteen baturari kalkulatzen zaion balioaren %70 edo hortik gorakoa izan beharko du.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 30

f) Lizitaziora jotzeko hainbat enpresarik Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat eratu badute, elkarte hori osatzen duten enpresetako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan xedatutakoaren arabera. Halaber, ABEEko kide bakoitzak xedearen zein proportzio egingo duen adieraziko du, guztien kaudimenaren gaineko baldintzak zehazte eta egiaztatze aldera.

g) **Kontratua gauzatzeko bitartekoak atxikitzeko konpromisoa:** Kaudimena egiaztatzen amaitzeko, enpresa lizitatzaileek bitartekari baten parte hartzea atxiki behar diote kontratuaren gauzapenari, halako eran non, asegurua exekutatzean, ondoko baldintzak betetzen dituen pertsona batek administratuko duen poliza, III. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera:

- Aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekariei buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 52. artikuluan aipatzen den Administrazio Erregistro berezian inskribatuta egotea.
- Gipuzkoan ezartzea.

Haren ordainsaria bakarrik erakunde aseguratzailearen kontu izango da.

a) Atzerriko enpresentzat, maila guztietako Epaitegi eta Auzitegi espainiarren jurisdikzioaren menpe jartzeko deklarazioa, kontratutik zuzenean edo zeharka ondoriozta daitezkeen gertakizun guztietarako, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko eginda.

b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzea.

c) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

Aurreko a), b) eta e) letretan adierazitako baldintzak egiaztatzeko, aurkeztu daiteke Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren egiaztagiri bat, Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialarena, edo ziurtagiri komunitario bat; hori guztia SPKLren 96. eta 97. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki eman daitezke.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatzaileak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapenean geratu den hurrenkeraren arabera.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ostean aurkeztutako dokumentazioak akats zuzengarriak baditu, 3 egun naturaleko epea emango da horiek konpontzeko. Hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta Mankomunitateko kontratatzaile profilean ere argitaratuko da.

19. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratua eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari esleitzea, lehen sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta Mankomunitate honen kontratatzailearen

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 30

profilean argitaratuko da.

Esleipena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, gehienez ere 15 egun balioduneko epean formalizatutakoan burutuko da kontratua.

Izenpetu beharreko kontratuaren kalifikazio eta espezialitate juridikoari dagokionez, kontratu hori formalizatutzat joko da dagokion poliza harpidetzen denean.

Kontratua formalizatzeko dokumentuan inola ere ezingo da esleipenaren baldintzak aldatzen dituen klausularik sartu.

20. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA

SPKLren 152. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Kontratazio Organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratua ez esleitzeko edo ez gauzatzeko erabakia hartu ahal izango du. Halaber, prozedura bertan behera utzi ahal izango du, kontratua prestatzeko edo esleitzeko prozedura arautzen duten arauetan zuzendu ezin den akatsik baldin badago. Kontratua ez gauzatzeko erabakia zein prozedura bertan behera uztekoa kontratua formalizatu aurretik hartu beharko dira, eta aipatutako artikuluan xedatutako baldintzen arabera.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

21. KONTRATUA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da, plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan xedatutako klausulak zorrozki betez, Mankomunitatearen gidaritza, ikuskapen eta kontrol pean, zeinak eskumen horiek ahoz nahiz idatziz baliatuko dituen. Kontratistaren betebeharra da gertatutako ezbeharrei dagokien indemnizazioa ordaintzea, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 18. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratua behar bezala garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu profesionalak emango dizkio enpresa kontratistak Mankomunitateari, inolako kostu gehigarririk gabe, esaterako, azalpen bileretara joatea, etab.

Konpainia aseguratzaileak konpromisoa hartzen du eskatzen zaizkion txosten eta proposamenak egiteko, eta polizaren edozein klausulari buruz eskatzen zaion informazioa eman beharko dio Mankomunitateari; gainera, ezbeharrik gertatuz gero, laguntza eta aholkularitza eman beharko dizkio erakunde aseguratuari eta aseguruaren onuradun den pertsonari.

Konpainia aseguratzaileak ezbehar tasari buruzko txosten bat aurkeztu beharko du urtero, Mankomunitatearen ingurunearekin bateragarria den formatu elektronikoan, gutxienez datu hauek jasota:

- Ezbeharraren erreferentzia.
- Ezbeharraren data.
- Inplikatutako aldeen identitatea.
- Erreklamazioaren data.
- Ezbeharraren komunikazio eta irekiera data.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 30

- Ezbeharraren itxiera data.
- Gertaeren deskripzioa.
- Kalteen balorazioa.
- Indemnizazioaren ordainketa: data eta zenbatekoak.
- Espedientearen egoera.
- Erreserbak eta berreskuratzeak.
- Ezbehar irekien, itxien, tramitazioan daudenen, egindako ordainketen, jasotakoen eta berreskuratzeen kopurua jasotzen duen laburpen taula.

- Ezbehar tasaren bilakaera.
-

22. KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Kontratu honetan ez dago baimenduta ez lagapena ez azpikontratazioa.

23. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau gauzatzeko baldintza berezi hauek exijituko dira:

Datuen babesa:

Kontratua gauzatzean kontratistak datuen babesari buruzko nazio-araudia eta Europar Batasunekoa bete beharko ditu.

Baldintza honek funtsezko kontratu betebeharraren izaera du, aipatutako Legearen 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

24. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua esleitzeko erabakian Mankomunitateko teknikari bat izendatuko da kontratuaren erantzulea izateko, kontratua gauzatzearen inguruko ikuskapena egiteko eskumenarekin eta jarraibideak emateko ahalmenarekin.

25. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK

Kontratistak indarrean dauden lege xedapenak bete beharko ditu lan arloari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari dagokienez, baita soldata baldintzei dagokienez ere, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektorialaren arabera; hori guztia kontratu honen xede diren zerbitzuetan enplegatzen dituen langileei dagokienez, eta Mankomunitatea salbuetsita geratuko da hori ez betetzeagatik egon daitekeen erantzukizunetik.

26. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, kontratista izango da kontratua gauzatzeak eskatutako eragiketen ondorioz sortutako kalteen erantzulea.

27. DATU PERTSONALEN BABESA

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 30

Kontratistak kontratu hau gauzatzean Mankomunitatearen kontura eskuratuko dituen datu pertsonalen tratamenduaren helburua izango da kontrataturiko aseguru polizei dagozkien erreklamazioak kudeatzea.

Kontratistaren betebeharra da SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian, eta gainerako datuen babesari buruzko nazio-araudian eta Europar Batasunekoan xedatzen dena betetzea.

Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu baino lehen, deklarazio bat aurkeztu beharko du jakinaraziz zerbitzariak non egongo diren kokatuta eta nondik emango diren beraiekin loturiko zerbitzuak, eta kontratua indarrean dagoen bitartean edozein aldaketaren beri eman beharko dio Mankomunitateari.

Lizitatzaileek bere proposamenean adierazi beharko dute zerbitzariak edo beraiekin loturiko zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten duten, enpresaren izena eta profila.

Kontratua dela-eta ateratzen edo eskuratzen diren dokumentuak eta informazioa konfidentzialak izango dira eta ez dira inolako bitarteko edo euskarriren bidez ez osorik ez partzialki erreproduzitu ahal izango; ez dira tratamendu edo edizio informatikoaren xede izango eta ez zaizkie hirugarrenei transmitituko beren zuzeneko exekuzio eremu mugatutik kanpo, ezta kontratu honen esleipendun den erakundeak dituen edo izan ditzakeen langileen artean ere.

Kontratuaren esleipendun den erakundearen eta bertako langileen betebeharra da eskuragarri duten informazio guztia erabateko sekretupean gordetzea eta informazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko zehazten diren neurri tekniko eta antolaketa neurri guztiak betetzea. Izenpetutako kontratutik eratorriko lotura amaitu eta iraungi eta gero ere, betebehar horiek bete egingo dira.

Betebehar hauek funtsezko kontratu betebeharraren izaera dute, aipatutako Legearen 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

28. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Enpresak laneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudia beteko du. Hala badagokio, enpresa jarduerak koordinatzearen inguruko dokumentazioa eskatuko da.

29. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan, besteak beste, EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, erregulatua; gainera, Debagoieneko Mankomunitatean (2013-2017) xedatutako hizkuntza irizpideak bete behar ditu.

Era berean, enpresa esleipendunak Debagoieneko Mankomunitatearekin izan ditzakeen ahozko zein idatzizko harremanak (polizak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak, etab.) Debagoieneko Mankomunitatearen lan hizkuntzari egokituko zaizkio, hau da, euskaraz, edo,onartzen den kasuetan, ele bietan.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 30

Kontratua sustatu duen administrazio atalak berak egingo du segimendua, zehaztutako hizkuntza baldintzak betetzen ote diren jakiteko, gainerako baldintzen segimendua egiten duen modu eta epe antzekoetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari, onarpena eman dezan, edo neurri zuzentzaileak proposa ditzan.

Klausula honetan jasotzen diren hizkuntza eskakizunak kontratuaren funtsezko obligazioa dira, eta eskakizun horiek ez betetzeak gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berak eduki ditzake, hau da, zigorrak ezartzea edo kontratua suntsitzea.

30. KONTRATUA JASOTZEA ETA BERME EPEA

Kontratua amaitu eta hilabeteko epean gehienez, kontratua hartzeko egintza formal eta positiboa egingo da.

Halaber, URTEBETEKO epea ezartzen da, harrera formalaren datatik zenbatzen hasita, berme moduan ezarrita, SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorrean xedatutako ondorioetarako. Epe horretan, egindako lanetan edo prestazioetan ager daitezkeen akats eta bizioen erantzulea izango da kontratista. Aurrekoa gorabehera, kontratua hartu eta indemnizatu beharreko ezbeharrik ez badago, aipatutako urtebeteko epea igaro baino lehen itzul daiteke behin betiko bermea.

Epe hori igaro eta Mankomunitateak eragozpenik jarri ez badu, kontratistaren erantzukizuna iraungita geratuko da.

31. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Aplikatzekoa izango da betebeharrak azkentzeari buruzko zuzenbide pribatuko araudi orokorra, baita aseguru pribatuen kontratuak erregulatzen dituen araudi espezifikoa ere.

Era berean, hauek ere kontratua bertan behera uzteko arrazoiak izango dira:

- Lizitazio fasean enpresa esleipendunak aurkeztutako datu edo dokumentuen faltsutasuna, Mankomunitateak edozein unetan egiaztatua.
- Esleipendunak jarduera etetea.
- Sekretu profesionalaren betebeharra ez betetzea.
- Kontratua osoki edo partzialki lagatzea.
- Gizarte, lan eta tributu obligazioak ez betetzea.
- Kontratuaren prestazioa jasotako eta izenpetutako baldintzetan ez betetzea.

Enpresa kontratistak administrazio klausula berezien plegu honen eta baldintza teknikoen pleguaren ondoriozko betebeharrak betetzen ez baditu, Mankomunitateak alde bakarretik suntsitu ahal izango du kontratua, eta horrek berekin ekarriko du suntsipenaren ondoriozko kalte eta galerengatik Mankomunitatea indemnizatu beharra.

IV.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 30

32. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu honek izaera pribatua du, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 25.1.a).1.a eta 26. artikuluetan xedatutakoaren arabera; hori dela eta, SPKLren Lehen Liburua ez ezik Bigarren Liburua ere aplikatzekoa izango zaio, prestaketari eta esleipenari dagokienez. Bere ondorioei eta amaierari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak izango zaizkio aplikatzekoak.

Beraz, kontratu hau ondoko xedapenen bidez arautuko da:

- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea, eta lege hori garatzen duten xedapenak.
- Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legea, eta aplikatzekoa izan litekeen zuzenbide pribatuko edozein xedapen.
- Baita Administrazio Klausula Berezien Plegu hau eta Baldintza Teknikoen Plegua ere.

Plegu honek eta baldintza teknikoen pleguak kontratu izaera izango dute. Pleguak eta gainerako kontratu dokumentuetako edozein bat etorri ezean, plegu hau gailenduko da.

33. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio ordena zibilak eskumena izango du aseguru kontratuaren inguruan aldeen artean sortzen diren gatazkak ebazteko.
Hala ere, kontratuaren prestaketaren eta esleipenaren inguruan ematen diren egintza juridikoak egintza juridiko banangarritzat jotzen dira, eta, ondorioz, egintza horiek inpugnatu egin beharko dira, hala badagokio, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.
.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA.

1. Kontratazio prozedura tramitatzeko (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.

1.1. Baldintza administratiboak:

a) Debagoieneko Mankomunitateak tramitazio elektronikorako erabiltzea baimentzen duen ziurtagiri digital bat edukitzea. Gaur egun hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria).
- FNMT (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria).
- Nan-e
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra)

b) Egoera hauetakoren batean egotea:

a) Alta egoeran egotea eta indarreko ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.

b) Lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntza sisteman alta emanda egotea.

c) Bi operadore ekonomikok edo gehiagok formalki elkarrekin parte hartzen badute ABEE elkarte bat eratzeko konpromisoarekin, ABEEaren konpromisoak aldi baterako gaikuntza sisteman erregistraturik egon beharko du.

1.2. Baldintza teknikoak:

Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan dago eskuragarri:
http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tecnicos.html

1.3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak eta intzidentziak argitzeko zerbitzua: 945016298.

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua: Sistema erabiltzeko, atari honetara sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK.

Bide elektronikoz egiten diren jakinarazpen eta komunikazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitartez egingo dira, https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/ lotura erabiliz. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den aldiro, enpresak bidalketaren oharra jasoko du I. **Eranskin** honen **Gehigarrian** horretarako adierazi duen helbide elektronikoan.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena **NAN-IFZ**

	Nire izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

* Aldi Baterako Enpresa Elkarteen kasuan, egokitu eredua, ABEE elkartea osatzen duten enpresetako bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztien datuak gehitzeko.

ADIERAZTEN DU(TE)

Kontratua esleitzeko prozedurari buruzko jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko (izena eta espedientearen kodea):

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAren hainbat aseguru zerbitzuren kontratu pribatua	33/2025

Hauek dira jakinarazpenak eta komunikazioak bide elektronikoz egiteko datuak[1]: JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Telefonoa **Mugikorra**

Oharretarako helbide elektronikoa:

Hartzailea:

Jakinarazpenak/komunikazioak	**jasotzeko**	**hautatutako**	Euskara		Gaztelania	

1 *Zenbait enpresak parte hartzeko eskaintza edo eskaera aurkezten badute, formalki Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat eratzeko konpromisoarekin, jakinarazpen eta komunikazioetarako helbide bakar bat aurkeztu beharko dute.*

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

II. ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREKIN

1. LOTEA, ONDARE KALTEEN GAINEKO ASEGURUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena **NAN-IFZ**

	Nire izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAren hainbat aseguru zerbitzuren kontratu pribatua

1. LOTEA, ONDARE KALTEEN GAINEKO ASEGURUA

Erreferentzia kodea

33/2025

Adierazitako kontratazio espedientearen inguruan eskatzen diren baldintzen eta betekizunen berri izanik, honako eskaintza ekonomiko hau proposatzen du:

a) ESKAINTZA EKONOMIKOA:

- **Urteko prima guztira**.....**€**.

Lizitatzaileak ohartarazi du aurkeztutako eskaintzan jasorik dagoela aplikatzekoak diren orotariko tributuen, tasen eta kanonen zenbatekoa; baita Aseguruen Konpentsazio Partzuergoarena ere.

b) Era berean, lizitatzaileak konpromisoa hartzen du, Baldintza Teknikoen Pleguaren 18. klausulan jasotako indemnizazio mugen eta azpimugen zabalpenari dagokionez, ondoren xehatzen diren hobekuntzak egiteko:

Baloratu beharreko indemnizazio mugak		**Baldintza Teknikoen Pleguaren 18. klausulako mugak**	**Eskaintza mugak**
Ezbeharragatiko indemnizazio muga orokorra		**600.000 €**	
Indemnizazio azpimuga			
Espezifikatu gabeko egoeretako ondasunak		30.000 €	
Berreraikuntza kostuaren hazkundea		100.000 €	
Matxura elektrikoak		30.000 €	
Hondakinak kentzeko gastuak, eraisteko gastuak…		100.000 €	
Sua itzaltzeko gastuak		50.000 €	
Profesionalen zerbitzu sariak eta peritazio gastuak		5.000 €	
Eraikuntza edota muntaketa		20.000 €	

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 30

Erosketa edota inbertsio berriak		50.000 €	
Alokairuen galera		20.000 €	
Nahitaezko irtenaraztea		300.000 €	
Kalte estetikoak		15.000 €	
Pausaguneko ibilgailuak		600.000 €	
Hutsegitea egokitzapen ekipamenduetan		30.000 €	
Zaintza gastuak		20.000 €	
Ordaindutako kostuen itzultzea		20.000 €	
Matxurak lokalizatzeagatiko gastuak		10.000 €	
Beira, kristal eta argi errotuluen haustura		10.000 €	
Lapurreta eta espoliazioa			
Eduki orokorra		250.000 €	
Eskudirua		5.000 €	
Kalteak		20.000 €	
Enplegatuen fideltasunik eza		5.000 €	
Ordenagailuak eta ekipamendu elektronikoak (ofimatika eta kudeaketa)			
Eduki orokorra		50.000 €	
Alokairu gastuak		5.000 €	
Aparteko gastuak		5.000 €	
Datuen kanpo eramaileak		5.000 €	

c) Azkenik, lizitatzaileak konpromisoa hartzen du Baldintza Teknikoen Pleguaren 19. klausulan jasotako gehieneko frankiziaren zenbatekoa honela murrizteko .....(ezabaketa edo %50)

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Enpresaren titularra den aldetik edo ordezkatzen duen enpresaren izenean, bere erantzukizunpean adierazten du:
1.- Eskaintza aurkezten duen enpresaren **ordezkaritza** dauka.

2.- Ordezkatzen duen enpresak Administrazio Publikoarekin **kontratatzeko ahalmena** dauka; izan ere, jarduteko erabateko gaitasuna izanik, ez dago SPKLren 71. artikuluan xedatutako inolako egoeratan sartuta.

3.- Eskatutako baimen/gaikuntza profesionalak, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, eta profesionala eta teknikoa dauzka, edo, bestela, dagokion sailkapena.

Aipatu kaudimena egiaztatzeko:

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 30

☐ BAI oinarrituko da beste enpresa baten bitartekoetan, eta horretarako beharrezko konpromiso idatzia dauka.
EZ da beste enpresa baten bitartekoetan oinarrituko.

4.- Atzerriko enpresa bat da:

	BAI, eta Espainiako jurisdikzio eta auzitegiei men egiten diet, dagokidan atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda
	EZ

5.- Enpresa:

Ez da enpresa talde bateko kidea.
…….izeneko enpresa taldeko kidea da, eta lotutako enpresen zerrenda eransten da, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluaren arabera.

6.- Eskaintzaren honako dokumentu, informazio eta alderdi hauek konfidentzialtzat dauzka, sekretu tekniko eta profesionalei lotuta daudelako: [2]

1.- …….
2.- …….
3.- …….
……

Izaera konfidentzial hori arrazoi hauengatik justifikatzen da: 1.- …….
2.- ……..
3.- ……..
……. ...

7.- Enpresak zerbitzariak edo beraiekin loturiko zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten du:

☐ Bai, zerbitzariak edo beraiekin loturiko zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten du honako enpresa honekin.....(izena eta enpresa profila).
Ez.

Lekua eta data:

2 Konfidentzialtasun adierazpena ezingo da enpresak aurkeztutako dokumentazio guztira hedatu, ezta eskaintza teknikoaren dokumentazio egiaztatzaile guztira ere. Kasu horretan, adierazpena neurriz kanpo dimentsionatzen bada, kontratazio organoak ebatziko du zein datuk edota dokumentuk merezi duten horrelakotzat hartzea. Enpresak ez badu berariaz adierazi datu edota dokumentu bat konfidentziala dela, ulertuko da aurkeztutako datuak edota dokumentuak ez direla konfidentzialak. Halaber, eskaintzak aurkeztu ondoren, ez da onartuko konfidentzialtzat jotzea aurkeztu diren unean horrelakotzat adierazi ez diren datuak.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

II. ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREKIN

2. LOTEA, ONDAREZKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO KALTEEN GAINEKO ASEGURUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena **NAN-IFZ**

	Nire izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAren hainbat aseguru zerbitzuren kontratu pribatua

Erreferentzia kodea: 33/2025

2. LOTEA, ONDAREZKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO KALTEEN GAINEKO ASEGURUA

Adierazitako kontratazio espedientearen inguruan eskatzen diren baldintzen eta betekizunen berri izanik, honako eskaintza ekonomiko hau proposatzen du:

a) ESKAINTZA EKONOMIKOA:

- **Urteko prima guztira**.....**€.**

Lizitatzaileak ohartarazi du aurkeztutako eskaintzan jasorik dagoela aplikatzekoak diren orotariko tributuen, tasen eta kanonen zenbatekoa; baita Aseguruen Konpentsazio Partzuergoarena ere.

b) Era berean, lizitatzaileak konpromisoa hartzen du, Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. klausulan jasotako indemnizazio mugen zabalpenari dagokionez, ondoren xehatzen diren hobekuntzak egiteko:

Baloratu beharreko indemnizazio mugak	Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. klausulako mugak	Eskaintza mugak
Ezbeharragatiko indemnizazio muga	600.000 €	
Indemnizazio muga urteko	600.000 €	
Indemnizazio muga biktimako	300.000 €	

c) Azkenik, lizitatzaileak konpromisoa hartzen du Baldintza Teknikoen Pleguaren 8. klausulan jasotako gehieneko frankiziaren zenbatekoa honela murrizteko .....(ezabaketa edo %50)

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Enpresaren titularra den aldetik edo ordezkatzen duen enpresaren izenean, bere erantzukizunpean adierazten du:
1.- Eskaintza aurkezten duen enpresaren **ordezkaritza** dauka.

2.- Ordezkatzen duen enpresak Administrazio Publikoarekin **kontratatzeko ahalmena** dauka; izan ere, jarduteko erabateko gaitasuna izanik, ez dago SPKLren 71. artikuluan xedatutako inolako egoeratan sartuta.

3.- Eskatutako baimen/gaikuntza profesionalak, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, eta profesionala eta teknikoa dauzka, edo, bestela, dagokion sailkapena.

Aipatu kaudimena egiaztatzeko:
BAI oinarrituko da beste enpresa baten bitartekoetan, eta horretarako beharrezko konpromiso idatzia dauka.
EZ da beste enpresa baten bitartekoetan oinarrituko.

4.- Atzerriko enpresa bat da:

BAI	, eta Espainiako jurisdikzio eta auzitegiei men egiten diet, dagokidan atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda
EZ	

5.- Enpresa:

Ez da enpresa talde bateko kidea.
…….izeneko enpresa taldeko kidea da, eta lotutako enpresen zerrenda eransten da, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluaren arabera.

6.- Eskaintzaren honako dokumentu, informazio eta alderdi hauek konfidentzialtzat dauzka, sekretu tekniko eta profesionalei lotuta daudelako: [3]

4.- …….
5.- …….
6.- …….
…….

Izaera konfidentzial hori arrazoi hauengatik justifikatzen da: 4.- …….

3 Konfidentzialtasun adierazpena ezingo da enpresak aurkeztutako dokumentazio guztira hedatu, ezta eskaintza teknikoaren dokumentazio egiaztatzaile guztira ere. Kasu horretan, adierazpena neurriz kanpo dimentsionatzen bada, kontratazio organoak ebatziko du zein datuk edota dokumentuk merezi duten horrelakotzat hartzea. Enpresak ez badu berariaz adierazi datu edota dokumentu bat konfidentziala dela, ulertuko da aurkeztutako datuak edota dokumentuak ez direla konfidentzialak. Halaber, eskaintzak aurkeztu ondoren, ez da onartuko konfidentzialtzat jotzea aurkeztu diren unean horrelakotzat adierazi ez diren datuak.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 30

5.- .....
6.- .....
....

7.- Enpresak zerbitzariak edo beraiekin loturiko zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten du:

☐ Bai, zerbitzariak edo beraiekin loturiko zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten du honako enpresa honekin.....(izena eta enpresa profila).

Ez.

Lekua eta data:

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

II. ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREKIN

3. LOTEA, INGURUMEN ARLOKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena **NAN-IFZ**

	Nire izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAren hainbat aseguru zerbitzuren kontratu pribatua

Erreferentzia kodea: 33/2025

3. LOTEA, INGURUMEN ARLOKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Adierazitako kontratazio espedientearen inguruan eskatzen diren baldintzen eta betekizunen berri izanik, honako eskaintza ekonomiko hau proposatzen du:

d) ESKAINTZA EKONOMIKOA:

- **Urteko prima guztira**.....**€.**

Lizitatzaileak ohartarazi du aurkeztutako eskaintzan jasorik dagoela aplikatzekoak diren orotariko tributuen, tasen eta kanonen zenbatekoa; baita Aseguruen Konpentsazio Partzuergoarena ere.

e) Era berean, lizitatzaileak konpromisoa hartzen du, Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. klausulan jasotako indemnizazio mugen zabalpenari dagokionez, ondoren xehatzen diren hobekuntzak egiteko:

Baloratu beharreko indemnizazio mugak eta azpimugak	Baldintza Teknikoen Pleguaren 7. klausulako mugak	Eskaintza mugak
Ezbeharragatiko indemnizazio muga	2.000.000 €	
Indemnizazio muga urteko	2.000.000 €	
Indemnizazio muga biktimako	150.000 €	
Kutsaduragatiko erantzukizun zibilaren azpimuga (ezbeharra eta urtea)	1.000.000 €	
Ingurumen erantzukizunaren azpimuga (ezbeharra eta urtea)	1.000.000 €	
Lurzoruaren deskontaminazioaren azpimuga		
(ezbeharra eta urtea)	50.000 €	

f) Azkenik, lizitatzaileak konpromisoa hartzen du Baldintza Teknikoen Pleguaren 8.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 30

klausulan jasotako gehieneko frankizien zenbatekoa honela murrizteko:

- **Gehieneko frankizia orokorra**.....(ezabaketa edo %50)
- **Lurzorua deskontaminatzeko gastuen frankizia, deskontaminazio gastuen kostuaren %.....**

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Enpresaren titularra den aldetik edo ordezkatzen duen enpresaren izenean, bere erantzukizunpean adierazten du:

1.- Eskaintza aurkezten duen enpresaren **ordezkaritza** dauka.

2.- Ordezkatzen duen enpresak Administrazio Publikoarekin **kontratatzeko ahalmena** dauka; izan ere, jarduteko erabateko gaitasuna izanik, ez dago SPKLren 71. artikuluan xedatutako inolako egoeratan sartuta.

3.- Eskatutako baimen/gaikuntza profesionalak, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, eta profesionala eta teknikoa dauzka, edo, bestela, dagokion sailkapena.

Aipatu kaudimena egiaztatzeko:

BAI oinarrituko da beste enpresa baten bitartekoetan, eta horretarako beharrezko konpromiso idatzia dauka.

EZ da beste enpresa baten bitartekoetan oinarrituko.

4.- Atzerriko enpresa bat da:

	BAI, eta Espainiako jurisdikzio eta auzitegiei men egiten diet, dagokidan atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda

	EZ

5.- Enpresa:

Ez da enpresa talde bateko kidea.

…….....izeneko enpresa taldeko kidea da, eta lotutako enpresen zerrenda eransten da, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluaren arabera.

6.- Eskaintzaren honako dokumentu, informazio eta alderdi hauek konfidentzialtzat dauzka, sekretu tekniko eta profesionalei lotuta daudelako: [4]

7.- …….

4 Konfidentzialtasun adierazpena ezingo da enpresak aurkeztutako dokumentazio guztira hedatu, ezta eskaintza teknikoaren dokumentazio egiaztatzaile guztira ere. Kasu horretan, adierazpena neurriz kanpo dimentsionatzen bada, kontratazio organoak ebatziko du zein datuk edota dokumentuk merezi duten horrelakotzat hartzea. Enpresak ez badu berariaz adierazi datu edota dokumentu bat konfidentziala dela, ulertuko da aurkeztutako datuak edota dokumentuak ez direla konfidentzialak. Halaber, eskaintzak aurkeztu ondoren, ez da onartuko konfidentzialtzat jotzea aurkeztu diren unean horrelakotzat adierazi ez diren datuak.

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 28. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

8.- .....
9.- .....
.....

Izaera konfidentzial hori arrazoi hauengatik justifikatzen da: 7.- .....
8.- .....
9.- .....
....

7.- Enpresak zerbitzariak edo beraiekin loturiko zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten du:

☐ Bai, zerbitzariak edo beraiekin loturiko zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten du honako enpresa honekin.....(izena eta enpresa profila).
Ez.

Lekua eta data:

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 29. orrialdea, guztira 30

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

III. ERANSKINA: BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

……jauna/andrea; NAN zk : ……, bere izenean edo enpresa ordezkatuz; IFK: ……; egoitza soziala ……

ADIERAZTEN DU

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAk hainbat aseguru pribatu kontratatzeko deitutako prozeduran proposamena aurkeztu ondoren, konpromisoa hartzen du, esleipendun suertatuz gero, kontratuaren gauzapenari bitartekari bat atxikitzeko, asegurua indarrean dagoen bitartean konpainia aseguratzailearekin harpidetutako poliza pertsona horrek administratu dezan.

Bitartekari horrek baldintza hauek beteko ditu:

- Aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekariei buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 52. artikuluan aipatzen den Administrazio Erregistro berezian inskribatuta egotea.
- Gipuzkoan ezartzea.

(Lekua, data eta sinadura)

Baliozkotze Kod.: 4QEP2NPK2KTL4FEMEMPQ2K759
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 30. orrialdea, guztira 30